



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Nekazaritzako ustiategietan inbertsioetarako laguntza M 4.1.

Ayuda a inversiones en explotaciones agrarias M 4.1.

NMEK ■ CUMAS



Landa Garapeneko Europako
Nekazaritza Funtza
Fondo Europeo Agrícola
de Desarrollo Rural

LGENF / FEADER

2015-2020 LGP 04.1 neurria
PDR 2015-2020 Medida 04.1

Eskatzailea, izen-abizenak edo sozietatearen izena ■ Solicitante, nombre y apellidos o razón social

NAN-IFK ■ DNI-NIF

| | |
|--|--|
| | |
|--|--|

Nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiteko laguntza eskatzaile gisa M 4.1 HITZEMATEN DU honako hauek egingo dituela:

- Eman dioten dirulaguntza onartu. Alde horretatik, NMEK onuradunari laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epean ez badio berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.
- Zer xede zehatzetarako eman den, hartarako erabili dirulaguntza, laguntza esleitzeko edo, beharrezkoa bada, likidatzeari buruzko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.
- Lagundutako inbertsioak eta gastuak egin, laguntzaren oinarri arautzaileetan eta hura emateko ebazpenean jasotakoaren arabera.
- Eraikinetan inbertsioak egiten badira, NMEK onuraduna aktiboan izan 10 urtez laguntza eman zaionetik, edukitze edo jabetza erregimen berebean.
- Nekazaritzako makinetan edo eraikinak ez diren bestelakoetan inbertsioak egiten badira, gutxienez 7 urtez aktiboan izan, jabetzan izateko eta NMEKean erabiltzeko, Nekazaritzako Makinen Erregistroan inskribatzen denetik edo, erregistroan inskribatu behar ez diren inbertsioetan, fakturaren egunetik.
- Makinak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritzako Makinen Erregistroan inskribatu.
- Makina berriak edo bestelakoak finantza errentamenduaren bidez (leasing) eskuratzen diren kasuetan, onuradunak nahitaez baliatu beharko du eskuratutako ondasuna erosteko aukera.
- Eman, espedientea bideratzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileari behar dituen argibide eta agiri gehigarriak, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailei, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europako Batasuneko

Como solicitante de la ayuda a inversiones en explotaciones agrarias M 4.1 SE COMPROMETE A:

- Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 10 días hábiles desde la notificación de la concesión de la ayuda la CUMA beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.
- Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la resolución de concesión o de liquidación, en su caso.
- Realizar las inversiones y gastos subvencionados en los términos establecidos en las Bases Reguladoras de la ayuda y en la resolución de concesión de esta.
- En el caso de inversiones en construcciones, una permanencia en activo al servicio de la CUMA beneficiaria de 10 años desde la fecha de concesión de la ayuda, en el mismo régimen de tenencia o en propiedad.
- En el caso de inversiones en maquinaria agrícola u otras diferentes a construcciones, una permanencia en activo, en propiedad y para el uso de la CUMA, por un periodo mínimo de 7 años desde la fecha de inscripción en el Registro de Maquinaria Agrícola o fecha de factura en inversiones exentas de registro.
- Inscribir la maquinaria en el Registro de Maquinaria Agrícola de la Diputación Foral de Álava.
- En los casos de adquisición de nueva maquinaria u otros mediante arrendamiento financiero (leasing), la persona beneficiaria estará obligada a ejecutar la opción de compra del bien adquirido.
- Facilitar, durante la instrucción del expediente, al órgano gestor de la ayuda cuanta información y documentos adicionales precise para determinar y comprobar los datos necesarios con el objeto de realizar la propuesta de resolución.
- Facilitar a los Departamentos de Agricultura y de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, a Órganos competentes del organismo pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al Tribunal



organo eskudunei eman haien egitekoak betez jasotako laguntza dela eta eskatzen duten informazioa.

- Administrazioak egingo dituen ikuskatze guztiak ahalbidetu eta haietan lagundu.
- Administrazioan zein tokian bertan beharrezko kontrolak egitea ahalbidetu, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak egoki gauzatzen ari direla eta ondoren konpromisoei eusten zaiela.
- Laguntza ordaintzeko eskatu, jarduerak amaitu eta gero.
- Egindako gastuen justifikazioa aurkeztu, laguntzaren oinarri arautzaileetan jasotakoaren arabera.
- Hartutako konpromiso guztiak, eta laguntzaren oinarri arautzaileetan eta hura emateko ebazpenean finkatutako betebeharrak bete.
- Publizitatea eman, finantzaketa publikoa dela, oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera.
- Laguntzaren zati bat edo osorik itzuli, oinarri arautzaileetan jasotako ez betetzeen ondorioz.
- Ezbeharra izan delako inbertsioari eusten ez bazaio, organo kudeatzaileari berariaz jakinarazi hori eta dokumentu bidez egiaztatu, gertakaria izan denetik hilabeteko epearen barruan.
- Hirugarren pertsonentzat lanak egiten badira, segurtatu zerbitzu horien balioa ez dela izango NMEKak guztira fakturatutako zenbatekoaren % 40 baino gehiago.
- Bazkideek, aurretiaz, eskatutako inbertsioaren guztizko balioaren ehuneko 20 ordaindu behar izango dute, sozietatearen kapital gisa.
- Nekazaritzako ustiatzietan titularrek osatuko dituzte, eta pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira, baina inork ezingo du parte hartu kontratista, kapitalista edo antzeko izaeraz.
- Sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren % 75, gutxienez, inbertsio planari eusteko konpromisoaldian zehar nagusiki nekazariak diren kideena edo bazkideena izatea.

Vasco de Cuentas Públicas y a los Órganos competentes de la Unión Europea la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la ayuda recibida.

- Someterse y colaborar en cuantas inspecciones realice la Administración.
- Someterse a los controles necesarios, tanto administrativos como in situ, para la comprobación de la correcta concesión y desarrollo de la ayuda, la correcta ejecución de las inversiones subvencionadas y del posterior mantenimiento de los compromisos.
- Tras haber realizado las actuaciones, solicitar el pago de la ayuda.
- Presentar justificación de los gastos realizados según lo establecido en las Bases Regulatoras de la ayuda.
- Cumplir con todos los compromisos adquiridos y obligaciones establecidas en las Bases Regulatoras de la ayuda y en la resolución de concesión de la misma.
- Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de acuerdo a lo dispuesto en las Bases Regulatoras.
- Reintegrar parcial o totalmente la ayuda como consecuencia de los incumplimientos señalados en las Bases Regulatoras.
- En el caso de no mantener la inversión por siniestro, notificarlo expresamente al órgano gestor y demostrarlo mediante prueba documental, en el plazo de un mes a partir del suceso.
- En caso de que se realicen trabajos para terceras personas, que el valor de estos servicios no supere el 40% del importe de la facturación total de la CUMA.
- Los socios y socias habrán desembolsado, previamente, como capital social un 20% por ciento del valor de la inversión solicitada.
- Estarán integradas por titulares de explotaciones agrarias, que podrán ser personas físicas o jurídicas sin que nadie pertenezca a título de contratista, capitalista u otro análogo.
- Que al menos el 75 % de su capital social o cuota de reparto deberá pertenecer a miembros o socios que sean agricultores a título principal durante el periodo de compromiso de mantener el plan de inversiones.



- Estatuetan edo batzar orokorraren erabakiaz, honako hau xedatu beharko da: titulurik eskualdatuz gero, berraztertuta geratu beharko da, konpromisoaldian, gutxienez bazkideen % 75ek nagusiki nekazariak izan beharko duela eta gutxienez sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaaren % 75ek inbertsio planari eusteko konpromisoaldian zehar nagusiki nekazariak diren kideena edo bazkideena izan beharko duela.
- Diruz lagundutako inbertsioarekin lotura daukaten urteko emaitzak eta datuak eduki.
- Diruz lagundutako makinekin konpromisoak dituzten edo konpromisoak hartzen dituzten bazkideen mugimendua eguneratuta izan
- Kooperatibaren ekonomia eta inbertsioaren errentagarritasuna zaintzeko beharrezko neurriak hartu, baldin eta bazkide batek edo gehiagok beren partaidetzagatik hartutako konpromisoak betetzeari uzten badiote, eta neurri horien berri emango die Nekazaritza Sailari.
- Que en sus estatutos o por acuerdo de la asamblea general se preverá que si hubiera traslado de títulos ha de quedar garantizado, durante el periodo de compromiso, que al menos el 75% de los socios sean ATP y al menos el 75 % de su capital social o cuota de reparto deberá pertenecer a miembros o socios que sean ATP durante el periodo de compromiso de mantener el plan de inversiones.
- Disponer de los resultados y datos de actividades anuales en relación con la inversión subvencionada.
- Tener actualizado el movimiento de socios/as que tengan o adquieran compromisos con la maquinaria subvencionada.
- Adoptar las medidas necesarias para salvaguardar la economía de la cooperativa, así como la rentabilidad de la inversión, ante la baja de uno o varios socios/as, de los compromisos adquiridos por su participación y comunicar dichas medidas al Departamento de Agricultura.

.....
(**Tokia eta data** ■ *Lugar y fecha*)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko nekazaritza ustiattegietan titularraren fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak Nekazaritza ustiattegietarako laguntzak eta inbertsioak kudeatzeko egiten dira, baita nekazaritza jardueren erregistroa kudeatzeko ere.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

DBEOk onartzen dituen eskubideak, hau da, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin eta mugatzekoak, egikaritu ahalko dituzu. Horretarako, nahikoa duzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz, Araba) joatea. Argibide gehiagorako:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektroniko Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Titulares explotaciones agrarias titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para gestionar subvenciones e inversiones a explotaciones agrarias así como para la gestión del registro de actividades agrarias.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.